



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO ABENDUAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.12.07.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn

Zinegotziak:

Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jñ.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Mentxu Peña Lizarazu and., gaixotasun bajarekin dagoelako.
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Goiko Karrikako sareen obren esleipena.
- 3.-Eliza Karrikako sareen obren esleipena.
- 4.-Salbatore Karrikako sareen obren esleipena.
- 5.-Eskola-garraioari buruzko eskaera.
- 6.-N-121A errepideari buruzko mozioa.
- 7.-Berako Udala: musika eskolari buruzko eskaera.
- 8.-Osasuna Fundazioa: diru laguntza eskaera.
- 9.-Kontseilua; diru laguntza eskaera.
- 10.-Alkatearen ebazpenak.
- 11.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2018ko azaroaren 5ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2018ko azaroaren 15ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-GOIKO KARRIKAKO SAREEN OBREN ESLEIPENA.

Nafarroako Parlamentuak onetsi du 19/2018 Foru Legea, Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onesten duena.

Honen bidez, hainbat inbertsio onartzen dira burutzeko, bertzeak bertze, Arantzako Goiko Karrikako sareen obrak.

19/2018 Foru Legearen arabera, honako araubide berezi hau ezartzen da:

-inbertsioek 2018ko abenduaren 31 baino lehenago esleituta egon behar dute eta gehieneko ekarpen ekonomikoa zehaztu baino lehen hasi ahal izanen dira.

-ez dira finantzarri izanen toki entitateek 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan eginikoak, ez eta 2018ko abenduaren 31 baino geroago esleiturikoak ere.

-gehieneko ekarpen ekonomikoa atxikitzeko eta zehazteko eskaerak egiteko epea muga-eguna 2019ko urtarrilaren 31 izanen da.

-obra hasierari dagozkion eskaeren kasuan exekuzio proiektua aurkeztu beharko da.

Ikusirik Goiko Karrikako sareen obren proiektua.

Ikusirik proiektuaren aurrekontua:

-Exekuzio materiala: 8.635,27 euro, BEZ barne.

-Ordainsariak: 690,81 euro, BEZ barne.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko. 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua (zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezia) eta 139. artikulua (izapidetze aurreratuko espedientea).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Arantzako Goiko Karrikako sareen obren proiektua onartzea.

2) Proiektuaren gastua 2019. urteko aurrekontuan gain izatea.

3)Obrak zuzenean esleitzea bi baldintza hauek pean: lanak 2019ko martxoaren 31rako eginak egotea eta kasuan kasuko ekitaldian kontratutik datozen betebeharrak finantzatzeko kreditu aski eta egokia izatea.

3.-ELIZA KARRIKAKO SAREEN OBREN ESLEIPENA.

Nafarroako Parlamentuak onetsi du 19/2018 Foru Legea, Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onesten duena.

Honen bidez, hainbat inbertsio onartzen dira burutzeko, bertzeak bertze, Arantzako Eliza Karrikako sareen obrak.

19/2018 Foru Legearen arabera, honako araubide berezi hau ezartzen da:

-inbertsioek 2018ko abenduaren 31 baino lehenago esleituta egon behar dute eta gehieneko ekarpen ekonomikoa zehaztu baino lehen hasi ahal izanen dira.

-ez dira finantzarri izanen toki entitateek 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan eginikoak, ez eta 2018ko abenduaren 31 baino geroago esleiturikoak ere.

-gehieneko ekarpen ekonomikoa atxikitzeko eta zehazteko eskaerak egiteko epea muga-eguna 2019ko urtarrilaren 31 izanen da.

-obra hasierari dagozkion eskaeren kasuan exekuzio proiektua aurkeztu beharko da.

Ikusirik Eliza Karrikako sareen obren proiektua.

Ikusirik proiektuaren aurrekontua:

-Exekuzio materiala: 18.501,69 euro, BEZ barne.

-Ordainsariak: 1.480,11 euro, BEZ barne.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko. 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua (zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezia) eta 139. artikulua (izapidetze aurreratuko espedientea).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Eliza Karrikako sareen obren proiektua onartzea.
- 2) Proiektuaren gastua 2019. urteko aurrekontuan gain izatea.
- 3) Obrak zuzenean esleitzea bi baldintza hauek pean: lanak 2019ko martxoaren 31rako eginak egotea eta kasuan kasuko ekitaldian kontratutik datozen betebeharrak finantzatzeko kreditu aski eta egokia izatea.

4.-SALBATORE KARRIKAKO SAREEN OBREN ESLEIPENA.

Nafarroako Parlamentuak onetsi du 19/2018 Foru Legea, Inbertsio Finantzarioki Jasangarriei buruzko Plana onesten duena.

Honen bidez, hainbat inbertsio onartzen dira burutzeko, bertzeak bertze, Arantzako Salvatore Karrikako sareen obrak.

19/2018 Foru Legearen arabera, honako araubide berezi hau ezartzen da:

-inbertsioek 2018ko abenduaren 31 baino lehenago esleituta egon behar dute eta gehieneko ekarpen ekonomikoa zehaztu baino lehen hasi ahal izanen dira.

-ez dira finantzagarri izanen toki entitateek 2018koa baino lehenagoko ekitaldietan eginikoak, ez eta 2018ko abenduaren 31 baino geroago esleiturikoak ere.

-gehieneko ekarpen ekonomikoa atxikitze eta zehazteko eskaerak egiteko epea muga-eguna 2019ko urtarrilaren 31 izanen da.

-obra hasierari dagozkion eskaeren kasuan exekuzio proiektua aurkeztu beharko da.

Ikusirik Salvatore Karrikako sareen obren proiektua.

Ikusirik proiektuaren aurrekontua:

-Exekuzio materiala: 25.846,91 euro, BEZ barne.

-Ordainsariak: 2.067,77 euro, BEZ barne.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko. 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua (zenbateko txikiko kontratuen gaineko araubide berezia) eta 139. artikulua (izapidetze aurreratuko espedientea).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Salvatore Karrikako sareen obren proiektua onartzea.
- 2) Proiektuaren gastua 2019. urteko aurrekontuan gain izatea.
- 3) Obrak zuzenean esleitzea bi baldintza hauek pean: lanak 2019ko martxoaren 31rako eginak egotea eta kasuan kasuko ekitaldian kontratutik datozen betebeharrak finantzatzeko kreditu aski eta egokia izatea.

5.-ESKOLA- GARRAIOARI BURUZKO ESKAERA.

Ikusirik Ollaraneko alkateak igorritako idatzia, 16 urtetik aurrera ikasten segitzen duten gazteentzako eskola-garraioaren falta dela eta, zerbitzua zabaltzea eskatzeko landa-eremuetako despopulazioaren aurka egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Egungo araudia aldatzeko eskatzea, horrela, landa-eremuetatik irakaskuntza-zentroetara eskola-garraio bermatzeko eta gutxienez ikasleek 18 urte bete eta garraioan autonomoak izan daitezkeen arte.

2) Akordio hau Nafarroako Gobernuari, Nafarroko Udal eta Kontzejuen Federazioari, Parlamentuko taldeei eta Ollaraneko Udalari jakinaraztea.

6.-N-121A ERREPIDEARI BURUZKO MOZIOA.

Ikusirik N-121A errepideari buruzko mozioa, Nafarroako Gobernuari eskatzeko neurriak hartzea eta behar diren hitzarmenak egitea N-121 A errepidean irteera edo helmuga ez duten merkantzien garraioa beste errepide alternatiboetatik joateko, Errioxako eta Kataluniako administrazio publikoek ibilgailu astunen proportzioa handia den errepide nazionaletan egin duten bezala (N-232, N-11, N-240 eta N-340).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako mozioa onartzea.

2) Akordio hau Nafarroako Gobernuari eta Malerrekako Mankomunitateari jakinaraztea.

7.-BERAKO UDALA: MUSIKA ESKOLARI BURUZKO ESKAERA.

Ikusirik Berako Udaleko idatzia, 2019-2020 kurtsorako Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolako ikasleen herri bakoitzeko Udalak gastuaren defizitaren zati bat asumitzeko eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Berako Udalarekin bilera egitea gaia aztertzeko.

8.-OSASUNA FUNDAZIOA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Osasuna Fundazioak aurkeztutako idatzia, 150,00 euro ordaintzea eskatuz, babeslea izateko.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Kontuan hartuz 2018ko aurrekontuan ez dagoelako partidarik horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Osasuna Fundazioak eskatutakoa ez ordaintzea, Udalak bertze lehentasunak dituelako.

9.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aurkeztutako diru laguntza eskaera, 2019. urterako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea eskatutako helburuentzat.

10.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2018ko 139. ebazpenetik 145. ebazpena arte.

11.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

12.-BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatu behar dira.

Kontuan hartuz Mentxu Peña Lizarazu andrea dela Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Arantzako Udaleko ordezkaria.

Kontuan hartuz Mentxu Peña Lizarazu andreak gaixotasun bajaran dagoen bitartean ez duela karguan segituko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkaria Juan Miguel Almandoz Mitxelena jauna izendatzea eta, ordezkoa, Ander Almandoz Indakoetxea jauna.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

